

1. SARRERA

Xake-jokoan aritzea ez da fenomeno berria, mila urte baino gehiago ditu. Kondaira asko dago haren jatorriaren inguruan, eta hainbat herrialdek diote bertan asmatu zela. Gaur egun uste da xakearen jatorria xatranj izeneko mahai-joko bat dela, VI. mendean Indian sortu zen txaturanga jokotik etorria.

Dudarik gabe, modu paregabea da hurrek (eta hurrak ez direnek) haien gaitasunak hobetzeko. Horrelaxe, ahalegin edo zailtasun handirik gabe, taula gainean oso gaitasun baliotsuak erabiltzen dituzte, adibidez, kontzentrazioa, pentsamendu logikoa eta sormena. Gainera, hainbat dohain dakarzkie jokalariei:

- Arreta edo gogoeta.
- Arazoen ebazpena.
- Erabakiak hartzea eta akatsak onartzea.
- Kalkulu-gaitasuna handitzen du.
- Arrazoiketa logikoa eta albo-pentsamendua garatzen ditu.
- Irudimen sortzailea sustatzen du.
- Kontzentrazioa indartzen du, eta hurren arreta bideratzen laguntzen.
- Oroimenaren dinamismoa aktibatzen du.
- Zentzu kritikoa pizten eta zorrotzen du.
- Ohitura positiboak sortzen ditu pentsamenduaren arloan: gogamen-diziplina, arrazoiketa, oroimena, ikerketa, analisia, sintesia eta abar.
- Sormena hobetzen du, eta pentsamenduaren malgutasuna eta originaltasuna sustatzen ditu.
- Arrakasta akademikoa handitzen du.

Hasiera-hasieratik, xake-jokalaria deskubritzen du jarraitutasuna, autoestimua eta arerioa balioestea ezinbestekoa dela jokoan aurrera egiteko. Ez da zaila antzekotasuna topatzea eguneroko bizitzarekin.

2. IKASTAROAREN HELBURUAK

Irakasleen helburuak:

1.- Beste batzuekiko harremanak erraztea eta taldeko jardueretan parte hartzea, xakean jardunez jarrera solidario eta toleranteekin; inhibizioak eta aurreiritziak gainditzea, ezberdintasun sozialak aitortzea eta era kritikoan balioestea; arrazan, sexuan, klase sozialean, sinesmenetan eta bestelako ezaugarri banakako zein sozialen ezberdintasunetan oinarritutako bazterkeria oro arbuiatzea. Giro on horretan, kideak eta kirol-legea errespetatu beharra dago.